

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko irailaren 29ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru dekretua:**

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzeari.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 427/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak aldi baterako esleitzea Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren buruari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 428/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea dirulaguntza emateari Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarteari, Zaporeak proiektu humanitarioa garatzeko, zeina bideratua baitago Greziako Moria eremuko errefuxiatuak elikatzerara.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 429/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko langileentzako ALET Administrazioako Langileen Euskarazko Trebakuntza programarako kontratua luzatzeari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 430/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea kreditu transferentzien zenbait espedienteri, Covid-19aren ondoriozko "A Plana"ri –Arabako Ekonomia Suspertzeko Plana– buruzkoak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eta Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 431/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Aurrekontu aldaketako zenbait espediente onestea, aurrekontu esleipenak Bus Elektriko Adimenduna ezartzeko lanak gauzatzeko erritmorra moldatzeko helburuaz, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskaturik.

Foru Gobernu Kontseiluaren 432/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren eskuetara itzultzeari Arabako Ekialde Lautadako Urkidetzari emandako ondasunak, hura desegin delako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 433/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Gasteizko Elizbarrutiko Apaiztegiarekin egindako "Latindarren Pabilioia" izeneko higiezinaren errentamendu kontratua 2020ko urriaren 1etik 2030eko irailaren 30era luzatzeari.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 434/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Arriolako Administrazio Batzarrak ekainaren 9ko 242/2020 Erabakiaren aurka aurkeztutako aurretiazko errekerimenduaren baiespenari.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 435/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Autobus Elektriko Adimentsua ezartzeko lanei jarraipena emateko akordioa sinatzeari, bai eta eman beharreko zenbatekoak esleitzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 436/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea "Errepideen foru sarean izotzik egin ez dadin eta, eginez gero, gesaltzeko, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 neguetako bidezaintza kanpainetarako gatzunaren horniketa" kontratua 2021eko urriaren 31ra arte luzatzeari.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 437/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea interesdunak abuztuaren 2ko 534/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa baiesteari.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 438/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Gopegi-Ondategiko (Araba) saneamendu sarean eta arazketa sistemetan hobekuntzak egiteko eraikuntza proiektuko obren behin betiko likidazioari eta jarritako bermea itzultzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 439/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Espejoko eskuineko ibaiartzeko hondakin urak Gaubeako HUAra isurtzeko lotura proiektuaren obren behin betiko likidazioari eta jarritako bermea itzultzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 440/2020 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Uribarri Harana eta Aldako saneamenduko kolektore-hodi biltzailea industrialdeko ponpaketaraino eramateko eta hura handitzeko obren behin betiko likidazioari eta jarritako bermea itzultzeari.